Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko maiatzaren 31, ostirala — 105 — Viernes, a 31 de mayo de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA

*Getariako Arau Subsidiarioen aldaketaren Ingurumen-Txosten Estrategikoa, «XVIII. Hirigintza Eremua Potzuaga-Gaina» eremuari dagokiona.*

1. *Aurrekariak.*

2024ko urtarrilaren 19ko idazkiaren bidez, Getariako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu dio Getariako Arau Subsidiarioen aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua izapidetzen hasteko, «XVIII. HE Potzuaga-Gaina» eremuari dagokionez. Eskaerarekin batera, aldaketaren aurretiazko dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa bidali ditu Udalak.

Getariako Arau Subsidiarioen aldaketari, «XVIII. HE Potzuaga-Gaina» eremuari dagokionez, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatu bat egin behar zaio, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.a artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.B eranskinaren 2. apartatuan ezarritako inguruabarrak gertatzen baitira.

Beraz, prozedura horren esparruan, eta eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea egin ondoren (abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa), Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen-txosten estrategikoa egitea. Txosten horretan, 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, zehaztuko da aldaketak ondorio esanguratsuak eragiten dituen ingurumenean, eta, beraz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen ala ez, ingurumen-txosten estrategikoak ezarritako baldintzetan.

2. *Helburuak eta aldaketan proposatutako antolamendua.*

Aldaketaren xedea da Getariako Arau Subsidiarioetan Potzuaga-Gaina eremurako ezarritako hirigintza-araubidea aldatzea, bizitegi-erabilerako urbanizagarri gisa sailkatua, mendebaldeko muga birdoitzeko (horrek azalera 1.002 m² handitzea dakar) eta antolamendu xehatu berri bat ezartzeko eta egun esleituta dagoen hirigintza-eraikigarritasuna handitzeko (12.534 m²(t)). Horri guztiari esker, hasiera batean Arau Subsidiarioetan planteatutako 120 etxebizitzak baino gehiago egin ahal izango dira (66, gizarte-babesekoak; 24, tasatuak; eta 30, libreak), batez ere eraikinen altuera solairu batean handituz.

Hala, 29.489 m²-ko eremuak bizitegi-eremu orokor nagusi bat (24.524 m²) eta bide-sistema orokor bat (3.231 m²) eta espazio libreen bat (1.734 m²) izango ditu. Sistema horien mugaketa bide-sistema orokorraren trazadura eta mugaketa berria (Herrerieta kalearen trazaduraren zuzenketa puntuala eta hilerrira sartzeko bidegurutzea hobetzea) berregokitzearen eta espazio libreen sistema orokorraren beharrezko zuzkiduraren kokapenaren ondorio da.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD

*Informe Ambiental Estratégico de la modificación de las NN.SS. de Getaria referida al ámbito «A.U. XVIII Potzuaga-Gaina».*

1. *Antecedentes.*

Mediante escrito de 19 de enero de 2024, el Ayuntamiento de Getaria ha solicitado a la Dirección General de Administración Ambiental de la Diputación Foral de Gipuzkoa el inicio de la tramitación de la evaluación ambiental estratégica simplificada de la modificación de las NN.SS. de Getaria referida al ámbito «A.U. XVIII Potzuaga-Gaina». Junto con la solicitud, el Ayuntamiento ha remitido el documento preliminar de la modificación y su documento ambiental estratégico.

La modificación de las NN.SS. de Getaria referida al ámbito «A.U. XVIII Potzuaga-Gaina» debe ser objeto de una evaluación ambiental estratégica simplificada al darse las circunstancias establecidas en el artículo 6.2.a de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, y en el apartado 2 del anexo II.B de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.

Por tanto, en el marco de ese procedimiento, y tras la realización del trámite de consultas a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas dispuesto en el artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, corresponde a la Dirección General de Administración Ambiental emitir el informe ambiental estratégico, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013 y en el anexo II.C de la Ley 10/2021 y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si la modificación produce efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

2. *Objetivos y ordenación propuesta en la modificación.*

La modificación tiene por objeto el de modificar el régimen urbanístico establecido en las NN.SS. de Getaria para el ámbito de Potzuaga-Gaina, clasificado como urbanizable de uso residencial, con el fin de reajustar su límite oeste (lo que implica un incremento de su superficie de 1.002 m²) y establecer una nueva ordenación pormenorizada y un aumento de la edificabilidad urbanística actualmente asignada (12.534 m²(t)), todo lo cual permitirá la ejecución de un mayor número de viviendas que las 120 inicialmente planteadas en las NN.SS. (66 de protección social, 24 tasadas y 30 libres), a través, fundamentalmente, del incremento en una planta de la altura de las edificaciones.

Así, el ámbito de 29.489 m² contará con una zona global predominante residencial (24.524 m²) y sendos sistemas generales viario (3.231 m²) y de espacios libres (1.734 m²) cuya delimitación resulta del reajuste del trazado del sistema general viario y de su nueva delimitación (rectificación puntual del trazado de la calle Herrerieta y mejora del cruce de acceso al cementerio), así como de la ubicación de la correspondiente dotación del sistema general de espacios libres preciso.

EK\CV GAO-I-2024-03923

Proposatutako hirigintza-eraikigarritasun berria 21.000 m²(t) da, eta horietatik 300 m²(t) hirugarren sektoreko erabileretara bideratzen dira; beraz, 200 etxebizitza berri inguru antolatu behar dira, 100 m²(t) ingurukoak. 11.385 m²(t) babes publikoko etxebizitza sozialetarako dira (110 etxebizitza) eta 4.140 m²(t) babes publikoko etxebizitza tasatuetarako (40 etxebizitza); gainerako 5.175 m²(t) etxebizitza libreetarako dira (50 etxebizitza), eta dagozkien garajeak izango dituzte sestra azpian. Horretarako, proposatzen da hilerriaren ondoan eta Akerregi kalean bost eraikin berriren lerrokaduran hiru eraikin egitea. Horien hegoaldean bosten bat aurreikusten da, plaza txiki batek bereizita.

Zuzkidura publikoek 8.400 m² batuko dituzte gutxienez. Era berean, zerbitzu-azpiegiturak zehaztuko dira, bereziki ur-hornidurakoak, saneamendukoak eta drainatzekoak, eta horri buruz antzemandako arazoak konponduko dira, bai eta dagoen goitentsioko linea lurperatzea ere. Era berean, irisgarritasun ezmotorizatua hobetzea proposatzen da, hirigintza-oztopoak minimizatuz (igogailu publikoa).

Ingurumen-dokumentu estrategikoan egiten den alternatiben azterketan hiru aukera aztertzen dira. 0 alternatiba (eremuan esku ez hartzea) baztertu egiten da, egungo bidea finkatzea ekarriko lukeelako, eta, hala, ez direlako hobetuko, besteak beste, Akerregi eta Herrerieta kaleetara eta hilerrirako sarbideetara iristeko baldintzak, eta ez litzatekeelako erantzungo udalerrian dagoen etxebizitza-eskariari erantzuteko udal-helburuari. 1. alternatiba bat dator indarreko plangintzan aurreikusitakoarekin, eta, planteatutako helburuei erantzuten dien arren, baztertu egiten da bizitegi-erabileraren intentsitateak (120 etxebizitza) ez duelako eremuaren garapena bultzatu. Goian azaldutako 2. alternatibak 1. alternatibarekiko antzeko ingurumen-eragin diferentzialaren balorazioa du, honako hauei dagokienez: lurzoru naturala, nekazaritza-erabilerak, landaredia, airearen kalitatea eta ingurune akustikoa, drainatze-sarea, hondakinak eta indusketa-soberakinak sortzea eta osasunean duen eragina. Bestalde, paisaiaren gaineko eragin kaltegarria handiagoa da alternatiba honetan, 1. alternatibarekin alderatuta, bertan antolatutako eraikinak solairu atzeraeman batean (atikoan) areagotu direlako.

Azkenik, 2. alternatiba hautatu da; izan ere, dokumentazioaren arabera, aukera hori da jarduketaren bideragarritasuna gehien bermatzen duena eta inguruko espazio publikoetan hobekuntzak egitea ahalbidetzen duena, bideen arloan (Herrerieta kalearen trazadura zuzentzea eta hilerrira sartzeko bidegurutzea hobetzea) eta irisgarritasun unibertsalean (igogailu publikoa), lurzoru iragazkorraren azalera maximizatuz eta, aldi berean, dentsitate handiagoa sortuz estandar onargarri batzuen barruan.

3. *Kontsulta egitea eragindako administrazioei, interesdunei, eta jendeari, oro har.*

21/2013 Legeak 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aldaketaren eta eragindako lurralde eremuaren ezaugarriak kontuan izanik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak interesdun gisa identifikatu ditu eta kontsulta egin die ondorengo administrazio eta erakundeei, eta organo sustatzaileak landutako dokumentazioa bidali die:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

La nueva edificabilidad urbanística propuesta es de 21.000 m²(t), de los que 300 m²(t) se destinan a usos terciarios, lo que supone que cabe ordenar en el ámbito del orden de 200 nuevas viviendas de una media de alrededor de 100 m²(t). 11.385 m²(t) se destinan a viviendas de protección pública sociales (110 viviendas) y 4.140 m²(t) a viviendas de protección pública tasadas (40 viviendas), mientras que los restantes 5.175 m²(t) se corresponden con viviendas libres (50 viviendas), que contarán con sus correspondientes garajes bajo rasante. Para todo ello, se plantean tres edificios junto al cementerio y la alineación de cinco nuevos edificios en la calle Akerregi, previéndose un quinto al sur de aquellos y separados por una pequeña plaza.

Las dotaciones públicas sumarán, al menos, 8.400 m². Asimismo, se precisarán las infraestructuras de servicios, en particular las de abastecimiento de agua y saneamiento y drenaje, resolviendo las cuestiones detectadas al respecto, y el soterramiento de la línea de alta tensión existente. Se propone asimismo el mejorar de la accesibilidad no motorizada minimizando las barreras urbanísticas (ascensor público).

En el análisis de alternativas que se efectúa en el documento ambiental estratégico se hace un análisis de tres opciones. La alternativa 0 (la no intervención en el ámbito) se descarta porque que supondría la consolidación del actual viario, de forma que no se mejoran, entre otros, las condiciones de accesibilidad a las calles Akerregi y Herrerieta y los accesos al cementerio y porque no daría respuesta al objetivo municipal de atender a la demanda de vivienda en el municipio. La alternativa 1 se corresponde con aquella prevista por el planeamiento vigente y, a pesar de que responde a los objetivos planteados, se descarta porque la intensidad del uso residencial (120 viviendas) no ha propiciado el desarrollo del ámbito. La alternativa 2, arriba explicada, presenta una valoración de la afección ambiental diferencial similar respecto a la alternativa 1 en lo que se refiere al suelo natural, a los usos agrarios, a la vegetación, a la calidad del aire y al entorno acústico, a la red de drenaje, a la generación de residuos y excedentes de excavación y a la incidencia en la salud. Por su parte, la incidencia paisajística adversa es mayor en esta alternativa frente a la 1 por el incremento en una planta retranqueada (ático) de los edificios ordenados en ella.

Finalmente, la alternativa 2 es la seleccionada ya que según la documentación es la que garantiza en mayor medida la viabilidad de la actuación y permite introducir mejoras en los espacios públicos del entorno, en materia de vialidad (rectificación el trazado de la calle Herrerieta y se mejora el cruce de acceso al cementerio) y en la accesibilidad universal (ascensor público), maximizando la superficie de suelo permeable a la vez que da lugar a una mayor densidad dentro de unos estándares asumibles.

3. *Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en las características de la modificación y del ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Administración Ambiental ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección General de Cultura de la DFG.

— Dirección General de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección General de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección General de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección General de Carreteras de la DFG.

EK\CV GAO-I-2024-03923

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Trantsizioko Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— Ihobe.

— Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Urola Kostako Udal Elkartea.

— Urkome (Urola Kostako Landa Garapenerako Agentzia).

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki Talde Ekologista.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), jendeak oro har eta edozein interesdunek egoki iritzitako ingurumen-ekarpenak egin ahal izateko.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun eta ekarpen hauek jaso dira:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak gomendatzen du, nahiz eta aldatu beharreko azalera Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren aplikazio-eremutik kanpo egon, lurzoru urbanizagarria denez, aztertzea zer eragin aurreikusten diren eremuko nekazaritza-erabilerei lotuta dauden ustiategietan.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak adierazi du aldaketaren eremua IV-V intentsitateko eremuan dagoela, arrisku sismikorako Larrialdi Planaren arabera. Beraz, udalerria salbuetsita dago arrisku horretarako larrialdi-plan bat egitetik. Hala ere, kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onartutako seismoen aurkako eraikuntzaren araua. Era berean, adierazi du eremuak ez duela baso-sutearen arriskurik, baina arrisku hori oso altu gisa kartografiatutako lurzati batekin mugakide dela, eta, beraz, kontuan hartu beharko dela proposamenak gauzatzearen ondoriozko lanak gauzatzeko fasean, bai eta hartutako konponbidean ere, hura handitu ez dadin.

Azkenik, EAEko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren Azterlan Plubiometrikoaren arabera, eremuko prezipitazio-isomaximoak 250 mm/egun dira 500 urteko errepikatze-denborarako,

— Dirección General de Movilidad y Transporte Público de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.

— Dirección de Industria y Transición Energética del Gobierno Vasco.

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— Ihobe.

— Entre Vasco de la Energía (EVE).

— Agencia Vasca del Agua (URA).

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Urola Kostako Udal Elkartea.

— Urkome (Agencia de Desarrollo Rural de Urola Kosta).

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo Ecologista Eguzki.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Administración Ambiental, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco recomienda que, a pesar de que la superficie objeto de modificación se localiza fuera del ámbito de aplicación del PTS Agroforestal al ser suelo urbanizable, se analicen las afecciones previstas sobre las explotaciones que, en su caso, estén ligadas a los usos agrarios en el ámbito.

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco señala que el ámbito de la modificación se sitúa en la zona de intensidad IV-V según el Plan de Emergencias ante el riesgo sísmico, con lo cual el municipio está exento de realizar un plan de emergencia para este riesgo. No obstante, se deberá tener en cuenta la norma de construcción sismorresistente aprobada por el R.D. 997/2002. Asimismo, señala que la zona no presenta riesgo de incendio forestal, pero que se encuentra colindante con una parcela con ese riesgo cartografiado como muy alto, por lo que deberá tenerse en cuenta el mismo durante la fase de ejecución de los trabajos que deriven de la ejecución de las propuestas, así como en la solución adoptada evitando un incremento del mismo.

Finalmente, menciona que, según el Estudio Pluviométrico del Plan Integral de Prevención de Inundaciones de la CAPV, las isomáximas de precipitación en el ámbito son de 250 mm/día

EK\CV GAO-I-2024-03923

eta horrek esan nahi du drainatze-obra guztiak diseinatzeko kontuan hartuko direla prezipitazio horiek, dagozkien itzulera-emariekin lotuta.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du ezen eremua iparraldetik hegoaldera banatzen duen bide-sistema orokorra (GI-3391) Kostaldeko Done Jakue Bidearen trazaduraren zati gisa deklaratuta dagoela, eta, beraz, ingurumen-dokumentu estrategikoak maiatzaren 24ko 66/2022 Dekretua jaso beharko duela, EAEtik igarotzen den Donejakue Bidea Monumentu Multzo izendapenaz sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzen duen Dekretua aldatzen duena. Sortutako inpaktua zuzentzeko neurri gisa, adierazi du aldaketaren ondoriozko dokumentua, bai eta ibilbide babestuari eragingo dioten etorkizuneko plangintzak eta proiektuak ere, erromesarentzat erabilgarria, jarraitua eta segurua izango den ibilbide erreal eta fisiko bat finkatuz garatuko direla. Horregatik, interesgarria izango litzateke espazio-erreserba egoki bat sortzea oinezkoen, bizikleten edo zaldien ibilbide horretarako, seinaleztapen eta argiztapen egokiarekin. Era berean, Donejakue bidea lurzoru urbanizaezinen (errepidea) eta etorkizuneko hiri-ingurunearen (kalea) arteko trantsizioan tratamendu berezia egitea gomendatzen du, jarraitutasuna ematen saiatuz, modu ibilgarri eta seguruan.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak jakinarazi du aldaketak ez duela inolako ondoriorik sortzen zuzendaritza horren eskumeneko azpiegituretan, eta, beraz, aldeko txostena eman du.

— Ihobek adierazi du aldaketaren eremuan ez dagoela lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzatirik. Nolanahi ere, aipatzen du 4/2015 Legeak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, jasotako betebeharrek adierazten dutela lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egotea edo jasan izana dela gakoa, eta ez hura inbentarioan sartzea, eta kutsadura-zantzurik hautemanez gero, aipatutako legearen 22. artikulua betez, horren berri eman beharko zaiola Ingurumen Sailburuordetzari.

Klima-aldaketak aldaketan izan ditzakeen ondorio kaltegarri esanguratsuei dagokienez, adierazi du Potzuaga-Gainan gehien eragingo duena klima-aldaketak eragindako bero-boladen arriskua dela, dituen berezko ezaugarriengatik, eta portu-eremutik eta itsasotik hurbilen dagoen hirigunetik urrun geratzen dela, itsas mailaren igoerarekiko eremu kaltebera gisa. Era berean, adierazi du interesgarria izango litzatekeela aldaketak balizko istripu larri edo hondamendien aurrean (fenomeno naturalak) izan dezakeen kalteberatasuna aztertzea. Azkenik, ingurumen-dokumentu estrategikoan aipatzeaz gain, aldaketaren dokumentuan klima-aldaketaren ikuspegia sartzea iradokitzen da, antolamendu-irizpideen eta klima-aldaketaren arteko lotura indartuz.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak jakinarazten du esku-hartzea egin nahi den lekuan ez dagoela kultura-ondareko elementu babesturik (arkitektonikoa edo arkeologikoa), Donejakue Bidearen trazadura izan ezik, eremuaren erditik igarotzen baita. Beraz, bideari eta haren ingurune babestuari eragiten dien edozein esku-hartzek urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuan (Donejakue Bidea Monumentu Multzo izendapenaz Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzen duena) eta maiatzaren 24ko 66/2022 Dekretuan (aurrekoa aldatzen duena) eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean berariaz xedatutakoa bete beharko du.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du Potzuaga-Gaina eremua Igarategi errekaren polizia-eremutik kanpo dagoela, eta Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren eragin-eremuaren barruan (500 metro); beraz, Kostaldeei buruzko Legearen arabera, arkitektura-pantailak sortzea edo bolumenak metatzea saihestu beharko da, eta, ondorio horietarako, eraikuntza-dentsitatea ezin

para un periodo de retorno de 500 años, lo que implica que para el diseño de todas las obras de drenaje se tendrán en cuenta estas precipitaciones correlacionadas a los oportunos caudales de retorno.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco indica que el sistema general viario (GI-3391) que divide el ámbito en su eje norte-sur, está declarado como parte del trazado del Camino de Santiago de la Costa, por lo que el documento ambiental estratégico deberá recoger el Decreto 66/2022, de 24 de mayo, de modificación del Decreto por el que se califica como Bien Cultural calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la CAPV. Como medida correctora del impacto generado, señala que el documento resultante de la modificación, así como los futuros planeamientos y proyectos que afecten al itinerario protegido, se desarrollarán atendiendo a fijar una ruta real y física que sea practicable, continua y segura para el peregrino, por lo que resultaría de interés generar una reserva de espacio adecuada para este itinerario tanto peatonal como ciclista o ecuestre, con una adecuada señalización e iluminación. Asimismo, recomienda realizar un tratamiento especial en la transición del camino de Santiago entre los suelos no urbanizables (carretera) y el futuro entorno urbano (calle), tratando de dar continuidad, de forma practicable y segura.

— La Dirección de Infraestructuras del Transporte del GV informa que la modificación no causa efecto alguno sobre las infraestructuras competencia de esa Dirección, por lo que la informa favorablemente.

— Ihobe indica que en el ámbito de la modificación no existen parcelas incluidas en el inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo. En todo caso, menciona que las obligaciones recogidas en la Ley 4/2015 para la prevención y corrección de la contaminación del suelo derivan de que el suelo soporte o haya soportado una actividad o instalación potencialmente contaminante y no de la inclusión del mismo en el inventario, y que, en caso de detectarse indicios de contaminación, en cumplimiento del artículo 22 de la mencionada Ley, se deberá comunicar este hecho a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

En relación con los efectos significativos adversos que el cambio climático pueda tener sobre la modificación, señala que es el riesgo por olas de calor como consecuencia del cambio climático el que más incidirá en Potzuaga-Gaina por sus características intrínsecas, quedando alejado de la zona portuaria y del área urbana más próxima al mar como zonas vulnerables a la subida del nivel del mar. Asimismo, indica que sería interesante considerar el realizar un análisis de la vulnerabilidad de la modificación ante eventuales accidentes graves o catástrofes (fenómenos naturales). Finalmente, se sugiere que, más allá de la mención en el documento ambiental estratégico, se incorpore la perspectiva del cambio climático a lo largo del documento de la modificación, potenciando el vínculo existente entre los criterios de ordenación y el cambio climático.

— La Dirección General de Cultura de la DFG informa que en la ubicación en la que se pretende realizar la intervención no existen elementos protegidos de patrimonio cultural (arquitectónico o arqueológico), a excepción del trazado del Camino de Santiago, que transcurre por la mitad del ámbito, por lo que cualquier intervención que afecte al camino y su entorno protegido deberán cumplir con lo establecido al efecto en el Decreto 2/2012, de 10 de enero, por el que se califica como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la CAPV y en el Decreto 66/2022, de 24 de mayo, que modifica el anterior, así como lo dispuesto en la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco.

— La Agencia Vasca del Agua (URA) comunica que el ámbito de Potzuaga-Gaina se sitúa fuera de zona de policía el arroyo Igarategi, y dentro de la zona de influencia (500 metros) del Dominio Público Marítimo-Terrestre, por lo que, según la Ley de Costas, se deberá evitar la formación de pantallas arquitectónicas o acumulación de volúmenes, sin que, a estos efectos, la

EK\CV GAO-I-2024-03923

izango da izan dagokion udal-mugartean programatutako edo urbanizatzeko gai den lurzoru urbanizagarriaren batez bestekoa baino handiagoa. Halaber, adierazten du ezen, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 48. artikuluan jasotakoa betez, hirigintza-garapen berriek behar-beharrezkoak diren azaleretara minimizatu beharko dutela zoladuraren edo okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa, eta drainatze jasangarriko hiri-sistemak sartu beharko dituztela (zoladura iragazkorren erabilera, ekaitzetarako tangak edo gailuak, etab.).

Baliabide hidrikoen eskuragarritasunari dagokionez, URAk adierazi du hirigintza-izapidetzearen ondorengo faseetan beharrezkoa izango dela proposatutako aldaketaren ondorioz sortutako eskari berrien zenbatespena egitea, baliabide hidrikorik dagoen ala ez adierazi ahal izateko. Era berean, hornidurari eta saneamenduari dagokienez, hornidura- eta saneamendu-sareak kudeatzen dituen erakundearen (Gipuzkoako Ur Kontsortzioa) txostena eskatuko da, eskari eta karga berriak hartzeko dauden azpiegiturak nahikoak direla ziurtatzeko.

Aldaketako Ingurumen inpaktu estrategikoa ebaluatzeko prozeduraren berezko eduki eta helburuetan eragina duten jasotako erantzun eta ekarpenei so adierazitako alderdiak aztertu eta kontuan izan dira ingurumen inpaktu estrategiko honetako atal ezberdinak.

Era berean, jasotako erantzun guztiak eta txosten hau egin ondoren iristen direnak Getariako Udalari bidaliko zaizkio, aldaketa egitean eta izapidetzean kontuan har ditzan, hala badagokio.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen II.C eranskinean jasotako irizpideen araberako analisia.*

1. Aldaketaren ezaugarriak:

Aldaketak aukera ematen du egungo eskakizunetara eta inguruabarretara egokitzeko, bideragarriak izan daitezen eta eremu bererako Getariako indarreko arau subsidiarioetan jada jasota zeuden bizitegi-jarduketak egin ahal izan daitezen. Horrela, proposatutako eraikigarritasunaren aldaketak eta gehikuntzak aukera emango du bizitegi-eskaintza 80 etxebizitza inguru handitzeko, udal-plangintzan helburu horretarako aurreikusita zegoen eta egungo hiri-bilbearen ondoan dagoen eremu batean.

Ildo horretan, eta lurzorua gaur egun dagoen baldintzen arabera, jarduketak lurzorua galtzea eta artifizializatzea dakar, baina inpaktu hori Getariako Arau Subsidiarioetan indarrean dagoen antolamendutik ondorioztatuko litzatekeenaren antzekoa da. Beraz, hirigintza-sailkapena eta aldez aurreko antolamendu-proposamena kontuan hartuta, ez da uste jarduketaren ondoriozko lurzoru-okupazioa esanguratsua denik, urbanizazio- eta eraikuntza-azalera kontuan hartuta, berdeguneetarako espazio libreen azalera handi bat mantentzen delako eta hiri-bilbearen ondoan planteatzen denez landa-lurzoruaren gaineko presioa murrizten delako, bizitegi-gune isolatu berri bat sortzea eragiten ez duelako, eta horrek ahalbidetzen duelako eskura dauden baliabide materialak eta energetikoak optimizatzea eta aprobetxatzea eta hurbileko zerbitzu eta azpiegiturak erabiltzea (bideak, hornidura-sareak, saneamendua, argiztapena, garraioa, etab.), hirigintza-plangintzan aplikatzekoak diren lurralde- eta ingurumen-jasangarritasuneko irizpideekin bat etorriz.

Horretarako, eta kontuan hartuta Potzuaga-Gaina eremuaren antolamendu xehatua aurreikusiko dela eta proposatutako zehaztapenak ez direla beste plan batzuen bidez garatuko, aldaketa esparru egokia da, plangintza-mailan ahalbidetzen baitu beharrezkoak diren ingurumen-kontsiderazioak txertatzea eta integratzea antolatzen dituen jardueren eta erabileren ezaugarrien, dimentsioen eta funtzionamenduaren barruan, bai eta hirigintzako garapen- eta egikaritze-araubidearen bitartez ere, nahitaez

densidad de edificación pueda ser superior a la media del suelo urbanizable programado o apto para urbanizar en el término municipal respectivo. Asimismo, señala que en cumplimiento de lo recogido en el artículo 48 Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental los nuevos desarrollos urbanísticos deberán minimizar la cuantía de pavimentación u ocupación impermeable a aquellas superficies que sea estrictamente necesarias, e introducir sistemas urbanos de drenaje sostenible (uso de pavimentos permeables, tanques o dispositivos de tormenta etc.).

En relación con la disponibilidad de recursos hídricos, URA indica que, en posteriores fases de la tramitación urbanística, será necesario la incorporación de una estimación de las nuevas demandas generadas derivadas de la modificación propuesta, de manera que, pueda pronunciarse sobre la existencia o no de recurso hídrico para satisfacerlas. Igualmente, y en relación con el abastecimiento y el saneamiento, se solicitará informe del Ente Gestor de las redes de abastecimiento y saneamiento (Consorcio de Aguas de Gipuzkoa) en el que se certifique la suficiencia de las infraestructuras existentes para acoger las nuevas demandas y cargas.

Aquellos aspectos señalados por las respuestas y aportaciones recibidas que inciden en los contenidos y objetivos propios del procedimiento de evaluación ambiental estratégica de la modificación se han analizado y tenido en cuenta en los distintos apartados de este informe ambiental estratégico.

Asimismo, todas las respuestas recibidas, y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe, serán remitidas al Ayuntamiento de Getaria a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación de la modificación.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013 de evaluación ambiental y en el anexo II.C de la Ley 10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi.*

1. Características de la modificación:

La modificación permite una adaptación a los requerimientos y circunstancias actuales para que sean viables y puedan abordarse las actuaciones residenciales que para el mismo ámbito ya se recogían en las vigentes NN.SS. de Getaria. Así, la modificación y el incremento de edificabilidad planteado permitirá el aumento en unas 80 viviendas de la oferta residencial de un ámbito que ya estaba contemplado en el planeamiento municipal para ese objetivo y se sitúa contiguo a la trama urbana actual.

En este sentido, y según las condiciones actuales en las que se encuentra el suelo, la actuación supone una pérdida y artificialización del mismo, si bien este impacto es de una magnitud similar a la que se derivaría de la ordenación vigente en las Normas Subsidiarias de Getaria. Por tanto, teniendo en cuenta la clasificación urbanística y la propuesta de ordenación previas, no se considera que la ocupación de suelo resultante de la actuación sea significativa atendiendo a la superficie de urbanización y edificación finalmente involucrada, a que se mantiene una importante superficie de espacios libres destinados a zonas verdes y a que al plantearse de forma contigua a la trama urbana se reduce la presión sobre el suelo rural al no suponer la generación de un nuevo núcleo residencial aislado, lo cual permite optimizar y aprovechar los recursos materiales y energéticos disponibles y hacer uso de los servicios e infraestructuras cercanas existentes (viario, redes de abastecimiento, saneamiento, iluminación, transporte, etc.), en consonancia con los criterios de sostenibilidad territorial y ambiental aplicables en la planificación urbanística.

A tal efecto, y teniendo en cuenta que se va a contemplar la ordenación pormenorizada del ámbito de Potzuaga-Gaina y que las determinaciones propuestas no se desarrollarán por medio de otros planes, la modificación es el marco adecuado que a nivel de planificación permite incorporar e integrar las consideraciones ambientales necesarias dentro de las características, las dimensiones y el funcionamiento de las actividades y usos que ordena así como a través del régimen de desarrollo y ejecu-

EK|CV GAO-I-2024-03923

kontuan har daitezen eta dagokien xehetasun-mailarekin osa daitezen urbanizatzeko jarduketa-programan eta dagozkion lizentziak eskatu aurretik egin beharreko urbanizazio-, eraikuntza- eta obra-proiektuetan.

Ildo horretan, eremuan planteatzen diren urbanizazio-proiektuei ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura aplikatu beharko zaie, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2.a) artikulua, II. eranskineko 7. taldeko b) letraren arabera, eta Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.2 artikuluan ezarritako inguruabarrak, II.E eranskineko E.7 taldeko 7.b apartatuarekin lotuta.

2. Ondorioen eta eragina jasan lezakeen eremuaren ezaugarriak:

Jarduketa-eremua Getariako hirigunearen hegoaldean dago, udalerrian jada urbanizatuta dauden eremuen ondoan, eta 2,9 ha-ko azalera okupatzen du, lurzoru urbanizagarri gisa kalifikatua, nagusiki bizitegi-erabilerarako. Iparraldean eta ekialdean dagoeneko garatuta dauden bizitegi-eremuekin egiten du muga (Potzuaga, Akarregi Gaina, Balentziaga, Erruera, Sahatsaga, etab.), eta hegoaldean hilerriaren eremuarekin eta lurzoru urbanizaezinarekin, zeina eremuaren mendebaldetik ere hedatzen baita.

Mendi-hegal leuneko orografia du (% 10 eta % 20 arteko malda) 70-90 koten artean dagoen eremuan. Iparraldeko eta hego-ekialdeko eremuan, 100 metro inguruko kota maximora iristen da, eta % 20-30eko malda du. Eremuan ez dago eraikinik txabola batzuk baino haratago, eta bideak Meagara eta bide batzuetara mugatzen dira. Lursailen egungo erabilera funtsean landa-erabilera da, ia azalera osoa belardietarako, baratze eta fruta-arboletarako eta zuhaitz- eta zuhaixka-landaretza duten eremu txikietarako erabiltzen baita.

Dauden ingurumen faktore nagusiei eta aldaketaren ondoriozko jarduketen antolamenduari lotuta baloratu beharreko arriskuei dagokienez:

— Azaleko urak: Eremuak ez du ur-ibilgu iraunkorrik, eta, beraz, aldaketan ezarritako antolamendu-proposamenak ez dakar inolako jarduketa zuzenik ibilgu batean ere, nahiz eta ikusten den prezipitazio gehien dagoen egunetan azaleko jariatze-urak agertzen direla ibarbideetatik. Eremuan eta inguruan ere ez da ur-punturik identifikatu.

— Landaredia, fauna eta natura-intereseko espazioak: Potzuaga-Gainaren azalera osoaren % 18 (2,9 ha) dagoeneko urbanizatuta edo antropizatuta dauden eremuei dagokie (bideak, espaloiak, bideak, txabolak, aparkalekuak, berotegiak, etab.). Urbanizatu gabeko eremuetan belardiak dira nagusi (% 38,7), eta, ondoren, landaredi erruderal-nitrofiloa (% 13,1), hiri-inguruko baratzeak (% 12,4) eta fruta-arbolak (% 7,37). Eremuko zenbait ezpondatan eta perimetro-eremutan sastrakadi orban batzuk eta sahats beltzezko zuhaixka batzuk ikus daitezke. Zuhaitzen presentzia urria da, haritz kandudunaren eta sahats beltzaren ale gutxi batzuetara mugatzen baita. Cortaderia selloana espezie exotiko inbaditzailearen zenbait gunetan ere ageri da. Katalogatutako edo interes bereziko landare-espezierik ez dagoenez, ingurumen-dokumentuak bateragarritzat jotzen du kaltea.

Faunari dagokionez, lehen deskribatutako landare-estalkiaren sinplifikazio-maila eta artifizialtze-maila direla eta, eremuan espero diren fauna-komunitateak eremu antropizatuetako komunitateei lotutakoak dira; beraz, dokumentazioaren arabera, oso probabilitate gutxi dago eremuan Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako animalia-espezieak edo onartutako kudeaketa-plana duten animalia-espezieak egoteko.

ción urbanísticos, de tal forma que se tengan preceptivamente en cuenta y se completen con el nivel de detalle correspondiente en el programa de actuación urbanizadora y en los proyectos de urbanización, construcción y obras sometidos previamente a la solicitud de las correspondientes licencias.

En este sentido, el o los proyectos de urbanización que se planteen en el ámbito deberán de ser sometidos al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada al darse las circunstancias establecidas en el art. 7.2.a) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, según la letra b) del grupo 7 de su anexo II, y las circunstancias establecidas en el artículo 76.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental, en su relación con el apartado 7.b del Grupo E.7 de su anexo II.E.

2. Características de los efectos y del área probablemente afectada:

El ámbito de actuación está localizado al sur del núcleo urbano de Getaria y de forma contigua a áreas ya urbanizadas del municipio, ocupando una extensión de 2,9 ha de suelo ya calificado como urbanizable de uso predominantemente residencial. Limita al norte y al este con zonas asimismo residenciales ya desarrolladas (Potzuaga, Akarregi Gaina, Balenciaga, Erruera, Sahatsaga, etc.) y al sur con la zona del cementerio y el suelo no urbanizable, el cual también se extiende a partir de la zona oeste del área.

Presenta una orografía de suave ladera (pendiente entre el 10 y el 20 %) en la zona localizada entre las cotas 70-90. En la zona más septentrional y sudoriental se alcanza la cota máxima próxima a los 100 m y con una pendiente del orden del 20-30 %. No consta la existencia de edificaciones en el ámbito más allá de algunas txabolas, circunscribiéndose el viario al paso de la carretera a Meaga y a algunos caminos, siendo el uso actual de los terrenos es fundamentalmente rural con la práctica totalidad de su superficie destinada a prados y algunas zonas de huertas y frutales y pequeñas zonas con vegetación de árboles y arbustos.

Respecto a los principales factores ambientales existentes y riesgos a valorar respecto a la ordenación de las actuaciones derivadas de la modificación:

— Aguas superficiales: El ámbito no cuenta con cursos de agua permanente, por lo que la propuesta de ordenación establecida en la modificación no supone actuación directa alguna sobre ningún cauce, si bien se observa que en los días de más precipitación afloran escorrentías superficiales por las vaguadas. Tampoco se ha identificado ningún punto de agua en el ámbito ni en su entorno cercano.

— Vegetación, fauna y espacios de interés naturalístico: Un 18 % de la superficie total de Potzuaga-Gaina (2,9 ha) se corresponde con zonas que ya están urbanizadas o antropizadas (viario, aceras, caminos, txabolas, aparcamientos, invernaderos, etc.), presentando los espacios no urbanizados una vegetación en la que fundamentalmente dominan los prados (38,7 %), seguidos de zonas de vegetación ruderal-nitrófila (13,1 %), de huertas periurbanas (12,4 %) y de frutales (7,37 %). En varios taludes y zonas perimetrales del ámbito se observan varias manchas de zarzales y algunos arbustos de sauce negro. La presencia arbórea es escasa, circunscribiéndose a unos pocos ejemplares de roble pedunculado y sauce negro. También hay presencia puntual en varias zonas de la especie exótica invasora Cortaderia selloana. Al no haberse constatado la presencia de especies vegetales catalogadas o de especial interés, el documento ambiental califica la afección como compatible.

Por lo que se refiere a la fauna, se señala que debido al grado de simplificación de la cubierta vegetal y del nivel de artificialización descritos anteriormente, las comunidades faunísticas esperables en el ámbito son las asociadas a comunidades de áreas antropizadas, por lo que la documentación estima como muy poco probable que el ámbito acoja la presencia de especies animales catalogadas o amenazadas incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas o especies animales con Plan de Gestión aprobado.
